

Esnea baserritik zuzenean

Mahala baserriko esnea erosteko aukera dugu lasarteoritarrok Dorre parke ondoko makinan

Ostiraletik aurrera baserriko esnea zuzenean, eta bitartekorik gabe erosteko aukera dugu Lasarte-Orian.

Duela aste batzuetatik ona, Dorre parke ingurutik, hau da, De Miguel farmazia ondotik pasa garen bizilagun guztiok ikusi dugu eguneko esnea erosteko aukera eskaintzen zigun makina hori. Baina ostiralera arte, ezin izan zen erabili.

Inaugurazioa

Herritar ugari bildu zen ostiral eguerdian makinaren inguruan.

Ana Urchueguia alkatea izan zen lehena makina erabiltzen. Makinan botila hartu, makinan dirua sartu eta botila bete zuen. Ostean, bertan zeuden herritarrei esnea eskaini zien.

Asko izan ziren esnea probatu eta etxera botila bat eraman zutenak.

Makinak baserriko litro bat esne euro baten edo litro erdia 50 zentimoren truke erosteko aukera ematen du.

Etxeok, nahiz makinan bertan eskuratu daitezkeen plastikozko edo beirazko botilak erabili daitezke eta bertan azaltzen dira jarraitu beharreko pausuak.

Baserritarrei laguntzeko

"Herritarrentzat zerbitzu ona da, produktu osasuntsu eta naturala delako," azaldu zuen Martin Morenok, Zerbitzu publikoetako arduradunak.

"Baserriei etorkizunerako bide bat ematea da," gaineratu zuen. Izan ere, Tolosako Leaburu auzoko Mahala baserritik egunero ekarriko dute esne pasteurizatua eta freskoa.

Mahala enpresak kudeatuko du makina eta erosten ez den esnea gazta egiteko erabiliko dela aipatu du Martin Morenok.

"Herritarrek ekimenari harrera ona ematea espero dugu," adierazi zuen eta, horrela bada, etorkizunean beste makina bat jartzeko aukera dagoela ere aurreratu zuen. •



Alkatea izan zen lehena makinatik esnea hartzen. Herritar ugari bildu zen makinaren nondik norakoak ezagutzeko.



Miriam Infante futbol jokalaria Madrilera doa selekzioarekin entrenatzera /2

ALBISTEA/3

Ipuin kontalaria izango da datorren ostegunean Amaraun ludotekan



Nerea Sanchez, Cabo Verden aritu da dortoken joan-etorriak ikertzen /4-5

ELUTXETA

SAGARDOTEGIA

ASTEARTETIK IGANDERA ECUERDITAN IREKITA

Oztaran bailara Urnieta Tel.: 943 556981



Miriam Infante Ostadar KFko futbolaria

‘Gazteenetarikoa izango naiz selekzioan’

■ Bihar Madrilera doa 16 urte azpiko Estatuko selekzioarekin entrenatzera. ■ Euskadikoan ere jokatzen du eta Errealekin entrenatzen hasi da. ■ Ostadar taldearekin gol asko sartzen du.

Bihar asteartea Madrilera doa Miriam Infante hiru egunerako Espainiako selekzioarekin entrenatzera. 14 urte ditu Ostadarreko jokalaria, oraindik denboraldi hau eta beste bat jokatuko ditu kadeteen mailan eta azken aldia ezusteko handiak hartu ditu. Euskadiko selekzioarekin jokatzen hasi da, Emakumeen Super Ligaxkan jokatzen duten Errealeko futbolarietara entrenatu zuen aurreko astean, eta Espainiako selekzioarekin entrenatzeko deitu diote.

JON ALTUNA

Bost bat urterekin hasi zen baloia ostikoka. Gogoa du baloia izan zuela oparirik politena. Gero, futbola aukeratu zuen beste kirol batzuen artean eta maila onean ari da jokatzen. Anaiaren eragina ere izango zen. Bost urte zaharrago da eta Real Union-en bigarren taldean jokatzen du, Preferente mailan. Hirugarren mailara igo nahi dute.

Madrilera zoaz Espainiako selekzioarekin entrenatzera, pozik egongo zara, ezta?

Bai, oso pozik. Ez nuen espero. Ezusteko handia izan da, baina oso pozik nago.

Lehen aldiz al zoaz horrelako kontzentrazio batetara?

Bai aurretik Euskadiko selekzioarekin izan nintzen. Ikusi egin behar beraz ea zer moduz aritzen naizen...

Bi euskaldun joango zarete, Gasteizko Ane Otxoa eta zu. Ezagutzen al duzu?

Bai, Euskadiko selekzioan egon ginenean lagunak egin ginen. Horrela hobe, orain adiskide bat izango dut Madrilan. Besteak ez ditut ezagutzen, toki guztietakoak daude, Mallorkakoak, Bartzelonakoak, Madrilekoak...

16 urtetik azpiko entrenamendua da, zuk 14 dituzu...

Bai txikienetarikoak izango naiz.

Ostadarren jokatzen duzu, Errealekin entrenatu, Euskadiko selekzioan zaude, orain Madrilera entrenatzera... baloratua sentituko zara, ezta?

Bai oso pozik nago. Inola ere ez nuen pentsatzen honaino iritsiko nintzen, ezustean harrapatu nau.

Beraz, gustatzen zaizulako jokatzen zenuen...

Bai, kirol honek zorutzen nau, oso gustukoa dut. Beste kirol

batzuk ere egin ditut, baina 11 urterekin futbola aukeratu nuen asko gustatzen zaidalako, eta hemen nago.

Euskadikoarekin askotan jokatzen al duzu?

Lau bat astetan sei bat entrenamendu egin genituen eta gero Valentziara joan ginen Torneo bat jokatzen. Bi partidua jokatzen nituen. Ondo egon zen.

Agian orduan ikusi zintuen norbaitek eta horregatik aukeratu zaituzte orain...

Bai hori uste dut.

Euskadikoan segiko al duzu?

Bai lehen fasea gainditu genuen eta bigarrena jokatzen joan behar dugu, uste dut, Kanariar irletara. Ikusiko da zer egiten dugun.

Gustatuko litzazuke Euskadiko selekzioa ofiziala izatea?

Bai, beti oso gustura egon naiz Euskadiko selekzioan.

Eta noiz hasi zinen Errealekin entrenatzen?

Aurreko asteazkenean Super Ligako neskekin entrenatu nuen lehenengo aldiz, baina duela bizpahiru aste hasi nintzen nire adinekoekin entrenatzen Aretxabaletako torneo jokatzen. Hori ere ondo atera zen eta pozik nago. Aste honetan, Madrilan nagoenez, ezingo dut handiekin entrenatu, baina datorren astean ere Errealeko talde nagusiarekin jardungo dut. Momentuz entrenamendu hauetarako deitu didate.

Denbora asko kentzen al dizu futbolak?

Nire ustez denerako denbora atera daiteke. Ez ditut ikasketak albo batera uzten, denbora daukat gustuko dudanerako eta baita ikasketetarako.



Miriam, Euskadiko selekzioarekin jokatzen duenean, buruan zapi duena da.

“ Nagoen tokian ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz. Ikusiko dugu etorkizunean zer gertatzen den.

Kirolari eta emakume, zer sentitzen duzu?

Mutilen futbolak beste maila bat du baina ondo sentitzen naiz.

Orain dela gutxi arte mutilen esparrua zen futbola...

Nik beti mutilekin jokatzen nuen 12 urterekin Ostadarren hasi nintzen arte. Futbolekin jokatzen nahi nuen, horregatik sartu nintzen eta oso pozik nago bertan.

Munduko txapelketa edo olinpiadaren batean jokatzen itxaropenik ba al duzu?

Sekula ez dut hona iritsiko nintzenik pentsatu eta ez dakit. Jada etortzen denari heldu beharko diot, eta nagoen tokian ahalik eta ondoen egiten saiatuko naiz. Ikusiko dugu etorkizunak zer dakarren.

Noiztik jokatzen duzu futboleant?

Bost urterekin jada aritzen nintzen. Nire lehen oparia baloia izan zen seguruen.

Baduzu anaiarik?

Bai nire anaiak 19 urte ditu, Real Union Bn jokatzen du Preferentean, eta asko laguntzen dit. Familia osoari gustatzen zaio futbola, asko. Txikitatik animatu naute.

Anaiarekin arituko zinen txikitant, ezta?

Askotan. Asteburuetan baloia hartu eta kalera ateratzen ginen jolastera.

Nolatan hasi zinen futboleant?

Ping Pong, atletismoa, futbola... kirol guztiak egiten nituen baino geroago batez ere futbolekin zaletu nintzen.

Zein tokitan jokatzen duzu?

Erdian ezkerretatik. Ezkerra naiz.

Golik sartzen al duzu?

Nire mailan gol asko sartzen ditut, iaz 49 sartu nituen. Ondo nabil baina selekzioan zailagoa izango da.

Eta partidua bakar batean, zenbat sartu dituzu gehien?

Aurten lau sartu ditut.

Zer moduz Ostadarren?

Ostadarren sartu nintzenetik oso gustura nago. Izan ditudan entrenadore guztiekin oso ondo egon naiz, prestatzaile eta pertsona bezala miresten ditut. Taldeko lagunak ere oso ondo portatzen dira nirekin.

Eta zer moduz ari da taldea?

Espero dugu aurten kopan ondo ibiltzea. Ea zer egiten dugun kadete mailakoek. Gero beste talde bat badu Ostadarrek erregionalean.

Nesken superligaxkan jokatzea hurbil ikusten al duzu?

Ez dakit, nik zelaian ahal dudana egingo dut eta urteak pasa ahala ikusiko da. Agian bai, baina zaila izango da kirol maila handia daukate eta. Oso onak dira. Aurrena Errealeko heldu behar, Super ligara. Bilbo urrunago dago.

Athletic-eko neskek Europan ere aritu ziren, jarraitu al zintuen partidua?

Batzutan ikusten ditut telebistaz emakumezkoen partidua. Gustatzen zait derbiak ikustea.

Batxilergoa ikasten ari zara?

DBHko 3. mailan nago, Lasarte-Usurbilgo institutuan.

Futbolaz aparte beste zein zaletasun daukazu?

Zaletasun nagusia beti izan da kirola. Ping pong-ean Euskadiko hirugarrena izan nintzen, atletismoa eta igeriketa ere asko gustatzen zaizkit. Marratzeta ere gustuko dut. •



Miriam Infante oso pozik ari da Ostadar elkartearen futbol taldean jokatzen.



Ipuin kontalariekin gozatu Amaraun Ludotekan

■ Hiruhilabete honetako izena-emate epea ireki da

Eguberrietako porren ostean, Amaraun Ludotekak bere ateak ireki ditu berriro eta arduradunek ekintza berezia prestatu dute ostegun honetarako.

Izan ere, herriko bi eta zortzi urte arteko haurrek ipuinez gozatzeko aukera paregabea izango baitute, 18:00etatik aurrera.

Kontu kantoi ipuin kontalarien eskutik, ipuina era berezian entzun eta bizi ahalgo dute haurrek.

Era honetara, Amaraun Ludotekak Lasarte-Oriako bi

eta zortzi urte arteko haur guztiak gonbidatzen ditu Ludotekara hurbildu eta ondo pasatzera.

Hiruhilabete berria

Honela, emango zaio hasiera hiruhilabete honi. Baina ez ahaztu, HH2 eta LH2 arteko haurrek ikastolatik atera eta milaka jarduera egiteko aukera dutela Amaraun Ludotekan.

Astean zehar, zein larribata goizean era guztietako tailerrak, jolasak eta, handienek, irteerak egiteko aukera paregabea izango dute.

Honetaz gain, Amaraun klubeko bazkietza, jostailuen mailegu zerbitzua eta jostailuei buruzko aholkularitza zerbitzuaz baliatu ahalgo dira haur eta gurasoak. Eta Aste Santuetako Txokoetan %10eko beherapena ere izango dute Ludotekako haurrek.

Hiruhilabetea hau edo ikasturte bukaera arte izena emateko aukera duzue.

Honetarako edo informazio gehiago eskuratzeko Ludotekara edo Ttakuneko bulegora hurbildu eta galdeztzea besterik ez duzue. •

Kolunbarioa erabiltzeko eskaera epea ireki du Lasarte-Oriako Udalak

Illarraltzueta udal hilerriko kolunbario berriaren erabilera arautuko duen ordenantza indarrean da dagoeneko, beraz, hau erabiltzeko interesa duten pertsonak eskaera egin dezakete.

Ana Urchueguia alkateak azaldu duen moduan, "gure helburua da hiritarrei zerbitzu oso bat eskaintzea denborarekin sortzen doazen beharrei egokitzuz, izan ere, azken urteotan ehorzketa kopurua jaitsi egin da."

Guztira 96 horma-hilobi ditu errauntsentzako. Horregatik, Udalak jakin arazi duenez, printzipioz, udalerrian bizi zirenen errauntsak bakarrik onartuko dira, hau da, hil-

tzeko uanean Lasarte-Orian erroldatuta zeudenak.

Era berean, Lasarte-Orian erroldatuta ageri diren pertsonen kasuan, baldin eta haien lehen mailako senitartekoak (gurasoak, seme-alabak) udalerriko hilerrian hilobiratuta badaude. Gorpua hilobitik atera eta erraustu ostean, errauntsak kolunbarioan gorde ahal izango dituzte.

Hala ere, eskaerak egin eta hilobiak libre egonez gero, udalerrian jaiok izan eta hiltzeko uanean bertan bizi ez direnen errauntsak ere gorde ahalgo dira.

Baldintzak eta eskaera

Unitate bakoitza erabiltzeko

epea hamar urtekoa izango da eta tasa 330 eurokoa. Epe hori luzatu ahalgo da, behin bakarrik eta beste hamar urtez, beti ere, aurretik ehorztita izan ez diren gorpu edo gorpuzkien kasuan.

Kolunbarioa erabiltzeko interesa duten pertsonak eskaera aurkeztu beharko dute Udaleko Erregistro Orokorrean.

Udalak emango dien inprimakiarekin batera, NANaren fotokopia, erraustu izana egiaztatzen duen dokumentua eta, aurretik lurperatu gabeko hilotzen errauntsak badira, heriotzaren Erregistro Zibileko inskripzioa aurkeztu beharko dituzte. •

JAM SESIOA

Kultur uztarketa Jalgin jam sesioan

Ostiral iluntzeko jam sesioa erritmo biziz betea egon zen. Oraingoan artista gonbidatua Max Mbaye saxojole senegalarrak lideratzen duen taldea izan zen, *Le Walo*.

Herritar asko hurbildu ziren jam sesiora eta izugarriko giroaz gozatu ahal izan zuten. Erritmo afrikarrez osatutako erreporitorio bikaina eskaini zuten jam sesioan parte hartu zuten guztiak. Bi ordu luzez aritu eta gero, merezitako txalo zaparrada jaso zuten ikusleek eskainita. •



Giro ezinhobea egon zen Jalgin ostiraleko jam sesioan.

POPULAZIOA

18.000 biztanleetara iritsi da Lasarte-Oria

Lasarte-Oriako Udaleko alkateak bere poza azaldu du hamar urte baino gehiagoren ondoren udalerrira 18.000 biztanlelik pasa delako, hain zuzen ere, 18.006 biztanle dira guztira. Arrazoi nagusia jaiotze-tasa da, izan ere, urteko 100 inguru jaiotzeko batz bestekotik, aurtun 202 jaiotzetara pasa da. •

SALAKETA

Xirimiri elkarteko pertsiana apurtua

Asteartean, urtarrilaren 12an, Xirimiri elkarteko kideek pertsiana puskatua aurkitu zuten. Dirudienez, erasotzaileak elkartean sartzen saiatu ziren, baina ezin izan zuten pertsiana ireki.

Ez da lehenengo aldia elkarteak horrelako erasoak jasaten dituen, duela lau urte lortu zuten sartzea. Kanpoan dituzten ikurrina eta banderak ere behin baino gehiagotan puskatu edo desagertu dira eta horregatik, azken aldiari ez dituzte jartzen. •



Xirimiri elkarteko pertsiana puskatu zuten, baina ez zuten barrura sartzea lortu.

ATERPEA

Loteriako saria Iturbe Zapaterian

Lasarte-Oriako merkatari elkarteak, Aterpeak jakin arazten du, gaurtik aurrera, elkarteko Loteria erosi zutenek irabazitakoa kobratu ahalgo dutela Iturbe Zapaterian, beti ere, dendaren ordutegian. •

ESKERTZA

Herritarren eskuzabaltasun handia

Nazimentuko Lagunak taldeak eskerrak eman nahi dizkie, abenduaren 24an, dirua eman zuten herritar guztiak. Gabonetako Txintxarri berezian azaldu genuen bezala, Alejandro Romoren bidez, Nikaraguako Yankee II herrialdera bidaliko da bildutakoa. Mila esker! •

Nerea Sanchez Biologoa

‘Esperientzia ezinhobea izan da Cabo Verdeko dortoken ikerketa’

Udazken hasieran izan zen Boavista irlan desagertzeko arriskuan diren dortoken egoera aztertzen. Aranzadi elkartearen eta Kanariar Unibertsitatearen proiektuan parte hartu du.

Nerea Sanchez Lasarte-Oriako biologoak esperientzia berri eta berezia bizitu zuen iaz iraila eta urriaren Afrikako Cabo Verdeko irlatan. Biologia ikasketak amaitu ondoren, itas biologian trebatzen ari da Nerea. aquarium batean lan egin du Getxon eta Karetako dortoken ikerketa batean parte hartu du Cabo Verde. Oraindik ez daki gerora zertan lan egingo duen baina orain artean ikasitakoa garatu nahi du.

Zer egiten zenuen?

Año edo lan ezagudietan aritu gara. Dortoka barietate guztiak egiten genuen lana. Hondarretan ibiltzen ginen arantzadi-entura zetozen dortoka emeen bila. Ikusiz gero, jarratu eta behin bukatzen zutenean, arantzadiak herriaraz. Gortitzen ari diren dortoka boba edo karta dortoka izenekoak neurtu eta kontatzen aritu da. Esperientzia bikaina izan dela kontatu digu.

Zer dela eta joan zara Cabo Verde?

Unibertsitatek eta Aranzadi elkarteak eskutitza iritsi zitzaizkidan udako praktikak Cabo Verdeko egiteko aukera nuela azalduz, eta irakurri bezain pronto esan nuen: "ez dut galduko. Nola ez dakit, baina joan egingo naiz". Izena nuen eta aukeratu nindutela esateko deitu zitaden, hainbeste beste 12 pertsonarekin batera joango nintzela. Kuxak ere laguntzen du proiektuan.

Biologia ikasi zenuen Unibertsitatean, eta pikkanaka itasoko egitean espezializatu zara.

Bai Gernikako Akuriumean aritu bai lanean. Egia da, arreta eta jakinmirri gehiena bizien bitan dago. Hori dela eta urte bide daraman horietan.

Esperientzia berria izan da beraz zuretzat Cabo Verdekoa...

Bai, apata, ederra. Edozein animaluko nuke horriakoren bat egin dezan.

Non egon zarete?

Cabo Verdeko irlatan, Boavista izenekoan egon ginen hiruzpahiru astez, iraila eta urriaren, dortoken lanean, Karetako Dortoka edo Dortoka Boba delakoa babesteko eta zaintzeko nazioarteko kampanjaren baitan. Egunero itzeleneko tokian izan nintzen ni, eta beste kampanjendutza bat Ponto Ferreiran zegoen.



Egun batean Boavistako nekia muturren bitan izan zuten, Nerea Sanchez-en ustez, hezkuntza oinarrikoa da dortokak babesteko.



Dortoka jolaberria itasora bidala.



Dortoka emeak gauaz arantzadien diran arantzadiak jarrezko toki egoki bila. Buzumetan hain jantzien dute eta bestetan ez, baina egunentzako izurletan diran itasora. Informazio hori gurea jasozten zuten egunero ikertzen.



Jaiotako mila dortokarekin batera helduzen da "heldutasunera".



Hilabete pasa zuten Nerea Sanchezek dortoken artean.

token ehiza debekatuta dago Cabo Verdean, baina oraindik badira araua errespetatzen ez dutenak. Dena den, honetan aurrerapen handiak izan dira eta nahiko kontrolatuta dago. Hondartzak bazteruan militarrek ibiltzen dira eta gu jenduntzen ere ez zen elkarrekin.

Besalide, naturan ere badituzte esateak dortokak, bazez ere txikiak direnean. Karamarrok antzama dituenak oso bizkorak dira eta dortoken arantzadi hartu eta jaten dituzte habietatik. Eta itasoran, dortoka jatorriek hainbat oztopo gaituzte behar dituzte, bizi nahi badute, beste hondartzak batzuetara bidain, esaterako marrazoa da hararrietako bat.

Ikerketaren beste atala hondartzeko arriskuan ziren habietan zen. Marea gora etortzean urak hararrietako arriskuan edo beste arazoaren balentgatik galdzeko arriskuan ziren habiak lekuz aldatzen ziren.



Nerea Boavistako haurrao batekin.

genuen. Turista bezala ibili ginen aste batez. Hori ere zoztagarria izan da.

Zenbat lagun zineten?

25 bat izango ginen guztira, 13 hemengoak. Besteak kanariarrek eta Cabo Verdekoak ziren. Bazuk zientzialariak, baina besteak ere bai, ikasleak, langabeteak, laguntzeko prest daudenak... Borondate onetokak denak.

Antzeko esperientziarik izan al duzu?

Ez eta joateaz ez naiz damunetzen. Eta ez pentsa kanpamentuan sekulako baldintza apartak ginenunik, jatekoa eta ura egunean behin eskatzen zituzten, ez zegoen dutsarik, ez komunikabaina hala eta esperientzia paregabekoa izan da.

Erreparietako moduko al da?

Bai gusatuak izatekoak izurletza eta proiektuarekin jarraitzea. Egun batean berriko umeekin ere egon ginen. Hitzaldi bat eman eta dortoka txikiak ikusi, uki eta ezagutzeko modua izan zuten.

Ikusgarria da dortokaboba hondarretan uzi eta mola ibiltzen diren ikuseta. Neska-mutikoak ere arazoekin kontzientzia harritzen ari direla somatu nuen, jakinena, hezkuntza oso garrantzitsua da. Oinarrikoa. *

“Haurrak arazoarekin kontzientzia hartzen ari direla somatu nuen. Hezkuntza oso garrantzitsua da.”

Sendabelarrei buruzko ikastaroa

Ttakun elkarteak antolatuko du belaunaldiz belaunaldi iraun duen ohitura galdu ez dadin

TXINTXARRI

Sendabelarrei buruzko ikastaroa antolatu du Ttakunek. Hilaren 25ean astelehena arratsaldeko 19:00ak eta 21:00ak artean egingo da Xirimiri elkartearen. Parte hartu nahi dutenek 5 euro ordaindu beharko dituzte, ikastaroan bi ukendu prestatuko dira eta, beraz, etxera eramateko potetxoak beharko dira.

Helburu ximple eta xumea du ikastaroak antolatzaileek adierazi dutenez, "guregandik gertuen dauzkagun, eta maiz erabili edo entzun ditugun belar arruntenak ezagutzen joatea".

Ezagutza partekatu

Gainera ikastaroaren helburuetako bat parte hartzen dutenek aurretik daukaten ezagutza partekatzea izango da, beraz belar hauen erabileren bat jakin edo beste ezagutzaren bat daukatenean beren ekarpena egiteko aukera izango dute. Antolatzaileek adierazi dutenez, jakina da hainbat gaixotasuni aurre egiteko garaian zenbait etxeetan

sendabelarrak erabiltzeko ohitura handia izan dela, "aurreko belaunaldira arte behintzat ia erabat".

Hau ahoz aho belaunaldi batetik bestera pasa izan da baina beldur dira hau ez ote den azkena izango. "Izan ere medikuntza "ofizialak" orain arte behintzat ez du oso begi onez ikusi belarren erabilera".

Ezkutuko erabilera

"Beraien kontrolpetik kanpo zegoen guztia zen txarra eta erabilera debekatu zuten urteetan. Azken aldiran ordea, zenbait medikuk beste era bateko joerak onartzen hasi eta ondorioz, atea ireki da lasaitasun gehiagoz medikuari aitortzeko adibidez txaplata edo enplasto bat edo beste erabili dugula edo halako edo besteko ukendua jarri dugula".

Hala ere, penaz aitortzen dute Ttakuneko ordezkariek denentzako kaltetan ezagutza ugari galdu dela hain juxtu isilpean erabili izan direlako, eta azken finean jokabide eta ohitura horiek baztertzeko joan garelako. "Ez inondik ere euren eraginkortasuna zalantzan



Gehien erabiltzen diren sendabelarrak eragutaraziko dira eta bi ukendu egiten erakutsiko da, hilaren 25ean Xirimirin.

dagoelako, baizik eta medikuekin izan ditugun harremanak ez direlako berdintasunean oinarrituak izan eta medikua jaingo txiki bat bezala tratatua izan delako. Gaurko egunera arte eta zenbait kasutan gaur egun ere bai".

Beraz, ikastaroan antolatzearen asmoa, gure amonei

edo amei entzundakoak berri-tzea izango da. "Izan ere emakumeak izan dira ezagutza hauen gordailu. Sarritan arris-ku handiz, sorginkeriekin lotzen zituztelako eta badakigu salaketa horiek batzuei zer ondorio ekarri zizkieten".

"Nork ez ditu ezagutzen berbera belarrak? Nork ez du

entzun pareta belarraren edo pasmo belarraren aipamenik? Ba al da inor, inoiz kamamilarik hartu ez duenik?" Ba hain juxtu belar hauek, gehien erabiltzen direnak, ezagutaraziko dira, zertarako diren komenigarri eta nola erabili behar diren, eta ikastaroan ukendu bat ere egingo da. •

Oinatz taldearen irteera Gasteizera

Santa Maria Katedrala, alde zaharra eta Artium museoa ikusiko dituzte

Oinatz taldeak irteera antolatu du urtarilaren 24an Gasteiz hirira. Alde zaharra, Artium museoa eta Santa Maria katedrala bisitatuko dituzte. Joan nahi dutenek urtarilak 21 osteguna baino lehen eman beharko dute izena Ttakun elkartearen.

Autobusez joango dira Gasteizko hirira. Goizean, Artium museoa ikusiko dute goizeko 11.30etatik aurrera. Bisita gidatua izango da eta lasarteoriarrek museoa dauden artelaren berri izango dute euskaraz, noski. Eguerdian alde zaharra ikusi eta



Gasteizko alde zaharra eta katedrala ezagutuko dituzte Oinatzeko partaideek.

bertako jatetxe batean bazkalduko dute.

Tokiko erreferentziak

Oinatz taldekoek bisitatutako tokien xehetasunak azaldu eta bertako bitxikeriaren bat eman ohi dituzte irteera guztietan eta irteera honetan Gasteizko alde zaharraren erreferentzia historikoak ez dira faltako.

Arratsaldean Santa Maria, aspaldion obratan den Gasteizko katedrala ezagutzeko aukera izango dute. Ordu beteko bisitan katedralaren historia eta bertako istorioak ezagutaraziko dituzte. Jakina da Ken Follet idazleak bere azken nobela eraikin honetan kokatu duela. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarrik ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

ARTEA AFRIKAN izeneko erakusketa ekarri du Max Mbaye senegaldarrak. Erakusketa koloretsua Jalgi kafe antzokian ikusi daitekeena. Lanak salgai daude. Jalgi kafe-antzokian, 9:00etatik 23:30era.




Erakusketa

Kutxaren babesa duen NATURAREN ARGAZKILARIAK 2009 lehiaketako argazkiak ikusgai. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Igande, 24

Zinea

PLANET 51 filma eskainiko da haurrentzako zinea sailean. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, EUSKARAZ.



Kafe antzerkia kulturetxeko kafetegian ostiralean

MATXINEN YO SERÉ EL NUMBER ONE kafe antzerkia eskainiko da Gazteria sailak eta Xpression kultur elkarteak antolatutako Gazte emanaldietan. Orain arte kontzertuak izan dira nagusi, baina eskaintza zabaltzeko asmoz, lehenengo aldiz antzerki eskainiko da.

OSTIRALEAN, HILAREN 22AN
KULTURETXEKO KAFETEGIAN
20:00ETAN, GAZTELANIAZ

Asteazkena, 27

Ipuin-kontalaria

KORUKO ZURUTUZAK ipuin bat irakurriko die liburutegira hurbiltzen diren haur guztiei. Kulturetxeko haurren liburategian, 18:00etan, EUSKARAZ

Osteguna, 28

Zinea

EL LUCHADOR filma ikusgai izango da Okendo Zinema Taldeak antolatutako osteguneko zinean. Sarrera, 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean.



Ostirala, 29

Kontzertua

V. MUSIKA TOPAKETEN barruan Irungo ahots zurien NAYADE ABESBATAK kontzertua eskainiko du. Brigitarren komentua, 19:30ean.

Antzerkia

"KLOWNTUZ! MENDIA!" lana eskainiko du Kili Kolo Taldeak. Emanaldi hau abenduan bertan behera geratu zen eta orain eskainiko dute. Jalgi kafe-antzokian, 22:30ean, EUSKARAZ.



Larunbata, 30

Antzerkia

Eusko Jaurlaritzak babestua, DESNUDOS EN CENTRAL PARK umorezko antzezlan eskainiko da. Manuel galiana, Enma Ozores, Maria Jose Alfonso, Paco Piquer eta Walter Gamberini ditugu antzezleak. Sarrera, 12 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 20:00etan eta 22:00etan. GAZTELANIAZ.



Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera
10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara

Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181



Esazu irratiko programazioa

Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

Landaberi Antzerki Eskolako zozketa

Santo Tomas egunean, Landaberi Antzerki Eskolako erifan zozketa egin zen, eta hauek izan ziren zerbaki saridunak: 1. Sarirako 1004; 2. Saria 4504; 3. Saria 1306; 4. Saria 4306; 5. Saria 4381. Saria eskuratzeko, 943 371 448 telefono zenbakira deitu. Urtarrilaren 21a arte egin daiteke. Zorionak sarituei!

EHNArekin arazorik izan badituzu

EHNArekin arazorik izan badituzu edo/eta informazio gehiago nahi baduzu, harremanetan jarri zaitezke posta elektronikoko honetan lasarte@baieuskalherriari.org. Ez izan dudarik eta bidali mezua lasai asko!

Euskal Inauterien konpartsa

Euskal Inauterien konpartsa antolatzaileek jakin arazi nahi

dute entsaioak hasi direla. Hauek Landaberi BHIko egoitzan egingo dira astearte eta ostegunetan 20:00etatik 21:00etara. Animatu zaitezte parte hartzera!

Amaraun ludoteka

Amaraun ludotekako ardura-dunek bigarren hiruhilekoaren matrikulazioa zabalik dagoela jakinarazi nahi dute. Matrikula egiteko edo informazio gehiago jasotzeko, jo Ttakunera, 943 371448, edo ludotekara bertara (Ola kalea 1, behe). Animatu, Amaraun ludotekan jolastu, ikasi eta ondo pasatuko duzue!

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858

txintxarri@txintxarri.info

txintxarri@ttakun.com



Saharari laguntza

Sahararen Aldeko Euskal Karabana hasi da lanean "Piztu Itzaropena" lelopean eta urtarrilaren 22ra bitartean elikagai eta konpresak bilduko ditu Lasarte-Oriako ikastola eta eskoletan, super-merkatuetan eta Emakumeen Zentro Zibikoan. Añorga eta Usurbilgo ikas-toletan eta herri honetako dendetan ere jarriko dira biltzeko ontziak eta baita, hurrengo urtarrilaren 23an, Urbil merkatal-gunean ere.



Inauteriak

Aurten ere Ttakun Kultur Elkarteak deialdi zabala egingo die herritarrei inauterietako desfile bateratuan parte hartzeko. Ostiraleroko deitutako bileran, Filmak gaia lantzea aukeratu zen. Parte hartzeko asmoa baduzue, ostiral honetan, hilaren 22an beste bilera bat egingo da Iñigo de Loiola kaleko Gazte Lokalean. Edozein zalantzarekin deitu edo pasa lasai Ttakunetik, 943 371448. Animatu eta hartu parte!

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

‘Nik ideiak bota eta ikusleak bere esperientzien bidez pelikulak sortzen ditu’

- Sorkuntza artistikoan, estrategia berrien bila dabil artista lasarteoriatarra, berak deritzon bezala, "sorpresa eragileen bila nabil"
- Pilarrek prozesuari garrantzi handia ematen dio "nire obra mutantea, beti aldatzen dagoena dela diote, eta ezin diet arrazoia kendu"

Pilar Soberon Garcia, Lasarte-Orian jaiotako 1971ean. Euskal Herriko Unibertsitatean Arte ederretan lizentziatu zen eskultura eta ikus-entzunezkoen espezialitatean.

1995ean XXXVI Gipuzkoako artista hasiberrien lehiaketan arte plastikoaren lehen saria irabazi zuen. 1996an Zumaiko itsas ibilguneko Eskulturen lehiaketan eta Tarragonako Diputazioko Julio Antonioren eskultura sariak lortu zituen. 1998an, Malagako Arte Plastikoaren Unica IV lehiaketan saridun izan zen.

Gelditzen ez den emakume horietakoa dugu Pilar. Hiru urtez erakusketarik jarri gabe egon eta gero, berriro dugu bere obra ikusgai Donostian, Grosen dagoen Galeria Arteko-n jarri duen "Connexions" erakusketan.

Itxaso MORENO

Zer aurkituko dugu "Connexions" erakusketan?

Ni beti bezala, ez ohiko artea eginen saiatu naiz. "Connexions"-en aurkituko duzun artea ez ohiko moduan izango da. Bi instalazio daude, horietatik bat fatxadan.

Leihoen gainean marrazki oso arinak jarri ditut, atea irekitzen den bakoitzean, hai-zearen bidez mugimendua islatzeko, jokoa sortzen du. Era berean, gardena da, kale-tik ikus daitekeena.

Nola definituko zenuke zure artea?

Interdiziplinarra. Diziplina ezberdinak nahasten ditut. Erakusketan honetan ikusten ditugunak zer dira marrazkiak edota eskulturak? Bakoitzari erabakitzen uzten diot. Nik hemen erakusten ditudan marrazkiak dira, baina ikusi gabe marrazturikoak. Nik paisaiak edota gorputzak begiratzeko ditut soilik, nire eskua libreak marrazten du, eta



Magnolia hostoak naturarekiko konexio bat sortzeko nahiarekin ezarrita.

amaitutakoan soilik begiratzeko zure obra? Honekin perfekzioa erabat handitzen da. Gauzei pixkanaka begiratzeko gehiago antzematen da. Askotan gauzak modu razionalen ikusten ditugunean zerbait berezia galdu dezakegu, baina nik erabilitako teknika-rekin gordinki islatzen da.

Beti esaten didate mutante xamarra dela nire obra, beti aldatzen dabilena. Eta arrazoia dute.

Zer da zuretzat zure obra?

Niretzat prozesu oso garrantzitsua da. Mundua aldatzen da, lekuak aldatzen dira, eta zure animu egoera ere asko-

tan aldatzen da, zu nola sentitzen zaren asko eragiten du artean. Nire obren bitartez ikusleei erreflexiorako bidea ireki nahi diet. Baina ahaztu gabe, obra hauek disfrutatze-ko direla.

Bakoitzak sumatzen duena onartzen da, bestela oso itxia izango litzateke, eta niri ez litzaidake horrela izatea gustatuko. Oso argi daukat ikusleak euren esperientzien bidez bete behar dituztela nik proposatutako obrak, beren pelikula eratzeko. Eta hori norberaren eginkizuna da. Nik botatako ideiak jolaserako habiapuntua eskaintzen dute. Artean garrantzitsuena ikuslea da.

Nola eragiten dute Deleuze eta Derridaren pentsamenduak zure obran?

Pentsalari hauen aburuz, bizitza ez dago ondo zehaztuta edo finkatuta. Ez dira bide bakar batean zentratzen.

Hemendik hona, aldrebes, gauzak modu errizomatikoan mugitzen dira. Mugimendu horietan, gauzak nahasten edo bizitzen dira. Beraien



Amaitu gabeko paper-bildua, jarraipenik izango al dute obra hauek?

pentsemendua oso sakona da, eta horren isla nire obretan markatzen ditudan marrazkiak izango lirateke adibide.

Modu infinitu batean dimentsioak eta pentsaerak daude, eta eurak elkar erlazionatzen dira, gure burmuinaren funtzionamendua antzekoa. Ideia bat bestearekin lotzen dugu, azkenean, konexioak sortzen ditugu, erakusketan honen izena hortik etorriko litzake.

Marrazkiak eta eskulturak, zergatik nahasketa hori?

Marrazkia egin eta gero, handitu egiten dut, formatu handian irudikatuz. Hauetan argizari egindako eskulturak sartzen dizkiot, material biguna eta erraz moldatzen dena. Bi materialak erabat nahastuz.

Altzairuz egindako instalazio bat ere baduzu, lehenengo aldia al da material hau lantzen duzula?

Normalean argizaria lantzen nuen, eta orain erabat ezberdina den material batera jo dut. Esanahia erabat aldrebes dute gainera.

Altzairua, serioa da eta bestetik, argizaria biguna, gorria, askoz biziagoa. Oso polita izan da esperientzia. Kristina de la Fuente, galeria honen arduradunak proposatu zidan, probatu, eta nik uste oso ondo geratu dela, erakarria da oso.

Zergatik erabili duzu argizari gorria soilik?

Gorria oso bizia delako. Koadroak txuri-beltzak dira, hotzak, eta argizari gorriaren bidez kontrapuntu bat ezartzen dut, aldatzeko, indarra sartzeko.

Magnolia hostoekin beste instalazio bat egin duzu, nolakoa izan da lana?

Petalok organikoak dira, lehortu egin behar izan ditut euren forma borobila mantentzeko, eta duten mugimendua sententziazio hori galdu ez zezaten. Ikuslea espazio txiki batean, berezia sartzen da. Momentu horretan hasten da gure barnean sententziazio arraro bat, Leireko elizaren kriptan sartzen garenean sentitu daitekeen antzekoa, obrarekiko barnerapen bat. Naturarekin konexio bat sortzen da, bizitasuna, energia positiboak betetzen gaituena, naturak eskaintzen dizkigunei erparatzeko aukera ematen digu; petaloen mugimendua, formak. Iraganeko da, petalok ez dira asko biziko. Obra hau arte areto honetarako espreski egin dut. Gauzak gustura egi-tearen adibide garbia da.

Noiz arte dago irekia erakusketan?

Otsailaren 5a arte egongo da irekia Arteko Kultur Gunean, Grosen. Asteartetik larunbatera, goizez eta arratsaldez. •

“ Erakusketak pertzepzioa lantzeko guneak dira, gauzak sentiarazteko modu berezia

“ Artean garrantzitsuena ikuslea da, obrak euren gozameneko egiten ditut